**ERREPORTAJEA** ZEZEN-KORRIDA TRINITATE JAIETAN · **GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN

**KIROLA** JESUS M. GABILONDO, C.D. ELGOIBARKO LEHENDAKARI BERRIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko ekainaren 8a/VIII. urtea/366. zkia






MAKINA EFIREMINTAREW INSTITUTIJA

**2001/2002 IKASTU RTEA**

San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoffiar
Ta, 943 74 41 32
F. 943 74 41 53
ingenieria@lmh.es
www.fmh.es

**Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobea eskaintzen dizu:**

## TXANDAKAKO ENPRESA 1NGENIARITZA

* **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua.
* **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
* **Emaitza erakargarriak:** tituludun %l**00 lanean** dihardu eta hauetatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate.

• EKAINAREN 13an, asteazkenean, bilera informatiboa egingo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azaltzeko.

• 18.30ean Makina Erremintaren Intituko ko) instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

• Irailaren 4ra arte matrikula epea zabalik.



cesi aquitaine poitou-charentes

IQNet — AENOR ER 0.1.11D 1W411C+21 — Euskadi



## Z orionak Marilyn

1926ko ekainaren batean jaio zen Los Angelesen Norma Jean Baker. Ez zuen aita ezagutu eta ama burutik gaixo zegoenez, umezurtztegietan pasa zuen haurtzaroa. 18 urterekin ospearen bideari heldu zion. Marilynek ba omen zekien orduan jendeak maitatuko zuela, ez polita zelako, ezta lana ondo egiteagatik, inoiz inorena izan ez zelako baizik. Hi] aurretik egindako azken elkarrizketetariko batean esan zuenez, bere bizitzako helburua zoriontsua izatea zen. Bizi izan balitz, 75 urte beteko zituen, hala ere jarraitzaile askok ospatu dute urtebetetze berezi hori. 1944an moda munduan hasi zen, kasualitatez, emakumeek gerra garaiko ekonomian zuten paperaz lanean ari zen kazetari batekin topo egin zuenean. Geroago aktore lanak etorri zitzaizkion. 30 film baino gehiago egin zituen. Bizitza pribatua, aldiz, gogorragoa izan zen. Hiru aldiz ezkondu zen, baina ez zuen zorterik izan. Lo egiteko pilulekin bere buruaz beste egin zuela esan zen, baina teoriak oraindik anitzak dira. Orduan John F.Kennedyrekin bizi zuen amodio istorioak hil zuela ere esan da. Hain ospetsua egin den "Happy Birthday, Mr President" abestiaren ondoren presidenteak ez zuen berriro ikusi nahi izan. 1962ko abuztuaren 5ean hilda agertu zen, mito guztiak bezala, gazte.

Cr o O N.

Leire Urkidi



## www.igandeak.com

Astearen azken eguna, zazpigarren eguna. Astelehenaren aurreko eguna, "bixpera de lunes". Asteburuaren bigarren eta azken eguna. Gazi-gozoak, horrelakoxeak dira igandeak, gazi-gozoak. www.aukerak.com: Lo egin, mendira joan, hondartzara joan, prentsarekin (suplemento eta guzti) gosaldu, bazkari gozo bat bazkaldu, siestatxoa egin, lagunekin bueltatxo bat eman, gizonarekin pasiaratxoa, kafezitoa, zinea,... www.melankolikoa.com: Orduak pasa ahala, eguzkiak indarra galtzen duen heinean, gozoa zena, gazia bihurtzen hasten da, igandea zena, astelehena bihurtzen. Ondorioz, hurrengo egunean burutu beharreko lan, betekizun guztien zerrenda mental birtuala egiten dugu, aste berriari hasiera emateak sortzen duen neke, agobio erreala jasan www.igandeak.com @ www.gazigozoak.com... zorionez gaur ostirala da. Asteburuon denoi).

Eguzkiñe Aranberri

WW

Erreportmea ........................................ 6

MOtZ MOtZ ............................................... 8

gehigarria ........................................... tt

kiRolAk ............................................... 20

aGenda ................................................ 24

2001-VI-8

# Urruzunoren begi ezkutua



Herri hartako horma grisek, herri gehientsuenenek bezala, ez zuten politika, kirola edo publizitatea zeramaten kartelak besterik ezagutzen. Ezer gutxik hausten zuen horma haien monotonia grisa eta herri hartako biztanleek jadanik ez zieten kartelei begiratu ere egiten,

Baina egun batean zerbait bitxia gertatu zen: herriko kate, taberna, geltoki, zine eta beste hainbat tokitako hormak, poema bana idatzirik zeukaten kartelez josita agertu ziren, norbaitek ezkutuan prestaturiko ekintza bat bailitzan.

Inork ez zekien zertarako ziren kartel haiek. Ez zuten publizitaterik eskaintzen, ezta inolako ekitaldi edo kontzerturik iragartzen ere. Sinpleki han zeuden, egonean, irakurtzen gelditzen zirenen denbora betetzen.

Eta horrela, euria zeharka eroriz pasatzen den bezala, oharkabe eta isilean, poesia herri hartako biztanleen artetik pasa zen. Egun hartan, behintzat, hormek grisak izateari utzi zioten.

Iñigo Otaño

## EZ DAGO ESKUBIDERIK

Lotsagarria, penagarria, tamalgarria... Asko eta asko dira gure egoera zail hau azaltzeko erabil daitezkeen hitzak. Denen artean, ordea, batek islatzen du nabarmenki: ezintasunak.

Igaro dira jada bi hilabete Mendaro herriko udaletxean Gaztetxearen aldeko proiektua aurkeztu genuela. Aurretik bilera bat egina genuen Udaleko partaide batzuekin eta bertan, gure borondatea argi eta garbi azaltzeko eskatu ziguten. Horretarako, aipatutako proiektua erakustea beharrezkoa zen. Ahalegin ugari egin eta gero, martxoaren 30ean aurkeztua izan zen eta denbora tarte jakin bat uztea pentsatu genuen ongi aztertu zezaten. Hilabete pasa ondoren, bilera bat egiteko ordua heldu zen. Alkatearekin hitz egin eta astebeteko epea jarri genueit bilera hori egin ahal izateko, eguna eta tokia beraien esku utziz. Baina orduan ere ez ziguten kasu zipitzik ere egin. Jarraian zetozen asteetan gauza bera egiten saiatu ginen baina, erantzunik ez zen inondik inora agertu. Argi eta garbi antzematen zen beraien borondate falta.

Hau ikusi ondoren, gure barnean sentitzen dugun zuei erakustea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Guk daukagun gogoa, nahia, itxaropena... hitz batean, nortasuna, zuei helaraztea nahi dugu, zuek ere senti dezazuen egoera tamalgarri honetan, guri bezala barreneko harrak lo egiten ez dizuela uzten.

Horregatik, guk geureari eutsiko diogu. Geure aldarrikapenetan jarraituko dugu eta ahalegin guztiak egingo ditugu gure Gaztetxe maitatu eta desiratua lortu ahal izateko.

Mendaroko Gazte Asanbladaren izenean
M.T.
NAN 72585880

ezea izen obizenak, NAN e a NWono zko

2 1hcruen IIITBA ESKUTITZAK calmi atherar4.2.1

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren @topagunea..com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.corn/barren
AFIOrKLOATZAILKA
Elpibarko Izarra

Efa
ELGOIBARKO IZARRIs
Lt./.1r1.4

Lnotwrznu.sA Elgoibarko Udata.ZUZENDARIA Eli Almou KAZETARIAK tratiAgirreazaldegi, Asier Orbea POBLIZRATIA Andoitz Agirregomezkorta MAKETATTAILEA Bea Ansola AORNISTRATO4 Amale Rothigez Ganariroa Jon Peli Uriguen. KOLABORATZAILEAKAmaia Lariz, Unai Argarate, Egtokine Aranberri. Lorea Perez de Afbeniz. Jokin Martinez,Ador Zebaleta. Leire Urkidi, Olga UnzIlla, Monlse Arregi, Juanno Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrubmga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi. Kokoe K.E. eta Urruzuno LT_ ATALEKO ESALEIA Gotzon Garate INPRIMATEGIA Gerlu Koop, E. TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAKOA SS-1.038/92 ISSN 1139.1865

*Elgoibarko Udalak, Ettsko Jauriarilzako Ktdrara Sailak eta Fortt Aldundiak dira: lagundutako*

kutxa
tur. eaker

fhpANsps..ar .1>G01111
LRUPO 011.00AT

## 181111)111211

• Emakume batek honako hau galdetu digu: "Duela gutxi San Lorentzora joan ginen bertan ipini dituzten mahai berrietan jatordua egiteko asmoarekin eta baserritar batek han ezin ginela egon eta bota egin gintuen. Nik Ieku hau publikoa zela pentsatzen nuen eta hala bada, ba al du eskubiderik gizon honek terreno horretatik inor botatzeko?"

Udaletik honako hau erantzun digute: "Terreno zati hori pribatua da, baina erabilera publikoa du Udalak terrenoaren jabearekin akordioa sinatu zuelako. Gero, jabeak eta baserritar honek arazoren bat duten edo ez, hori beste gauza bat da; baina jendeak ez dauka hortik aldegin beharrik".





• Herritar batek honako hau argitaratzeko eskatu digu: "Olasope poligonoan, Egondo kaldereriaren aurrean, ez dago "stop" edo "ceda el paso" seinalerik, eta ez dago garbi nork duen preferentzia. Udalari seinalen bat jartzea eskatu nahi diot".

• Bi gazte etorri zaizkigu BARRENera Urasandiko U-a kentzekotan direla entzun dutela eta kezkatuta: Egia al da Urasandiko U-an aparkamentuak egiteko botako dutela?

Guk Udalera jo dugu eta hona hemen eman diguten erantzuna: "Urasandiko U-a ez dute kenduko. Aparkamentuen edo eskailera mekanikoen proiektuen prestakuntzan lanean ari dira teknikariak, baina U-a kentzeko asmorik ez dute inoiz izan".

• Emakume batek Patxi udaltzaina txalotu nahi du: " Goizeko 07:45etan, Txankakuako zubian, pasoa ematen bera dagoenean sekula ez da auto ilararik sortzen. Ez dakit zergatik izango den, baina gizon honek ikaragarri arintzen digu goizeroko auto karabana", esan digu herritar honek.

Barrak, Birrak eta Barreak



## Mazzantiniren ondo-

# ɹ aza 7x.dio zezenpla

**_Aurten apirilaren 24an beie dira 75 urte Luis Mazzant elgoibartarra hil zela. Data esanguratsu hori gogor Zezenzaleen Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Be_ zeresana _sortu duen zezenketa komikoa. Izan ere, Elgoibarko Plaza Txikia La Maestranzaren pare traje dis Jose Luis Arana "Tati", Jon Ander Plazaola "Txikito Altzo "Lapra" zezenaren eta herritarren aurrean Iberaien ausardi dira. Antolatzaffeetariko_ batek, _Ixidor Solupek, eta bi prota "Txikito Altzola"-k eman digute zezenketaren berri._**



Trinitate jaietan egingo den ekitaldia ez da guztiok zezenketa moduan ezagutzen duguna izango, zezenketa komikoa baizik. "Lehenengo zaldi munta erakusketa, gero errekortadoreak eta azkenik zezenketa komikoa. Ez dago pikadorerik, ez banderilarik, ezta hilketarik ere. Berez zezenak ere ez dira, behi txikiak baizik. Istripurik ez gertatzeko eta barregarriagoa izateko egin dugu", esan digute antolatzaileek.

**Zezenketa komikoa Plaza txikian izango da bihar, hilak 9, arratsaldeko 18:30ean**

Mazzantinik jarri omen zuen modan zezenketa komikoa. Gaur egun herrian ez dago toreatzailerik, baina beste modu baten bada ere, zezenketa antolatzeko erabakia hartu zuten Mazzantini Zezenzale Elkartekoek. "Argazkien eta informazioen arabera 1947ra arte Elgoibarren txekorketak egiten ziren. 1926ko jaietako programan bi txekorketa azaltzen dira, eta 1850etik mende bukaerara arte ere sarritan egiten zituzten. Badira Trinitateetan ere izaten zirela erakusten duten aztarnak".

1946tik 1967. urtera arte hutsunea izan zen. Orduan, Debabarreneko hainbat herri zezenketak antolatzen hasi ziren Eibarren. "Garai hartan Manolen arteko konpetentzia egoten zen eta urte batzutan elgoibartarrak ederrenak izan omen ziren. Lehen urtean Vazquez toreroak hartu zuen parte eta Gerardo Garate 'Katalo' laguntzaile izan zen".

Zezenketarik ez da egin 1949. urtetik aurten arte, eta Trinitateetan ekitaldi asko ez zegoela ikusita, zezenketa prestatu dute. Mazzantini elkartekoen esanetan, "elkarte bezala zezenetarako zaletasuna izan dugu beti, eta gure asmoa zezenketa antolatzea izan da, baina herrian inongo polemikarik sortu gabe. Herriak onartzen duen neurrian jarraituko dugu".

Mazzantiniz gain, herrian torero gehiago ere izan direla jakin dugu. "Txikito de Madalena", "Urkiri" eta "Plantillerito", batzuk aipatzearren. "Plantillerito"ren semea izango da larunbateko zezenketako presidentea. Zezenketaren aurretik kalejira egingo da, eta bertan zaldi gainekoek, errekortadoreek, hiru toreatzaileek, Manolek, presidenteak eta laguntzaileek hartuko dute parte.



goak

an

ia toreatzaile
Mazzontinl
este, herrian
te bezperan,
jantziko da.
Linai Elorzo
tzen saiatuko
k 'Tati"-k eta





### Jose Luis Arana "Tati" eta Jon Ander Plazaola "Txikito Altzola

# "Jendeak ondo erantzungo duela uste dugu"

**Zezenketa baino egun batzuk lehenago urduri somatu genituen Jose Luis Arana "Tati" eta Jon Ander Plazaoia "Txikito Altzola". Hiru protagonistetatik biekin hitz egin genuen. Hona hemen hizketalditxo hartatik ateratakoa:**

**Nolatan ausartu zarete horrelako gauza bat egitera? Txikito:** Zezenak oso handiak ez baziren aterako nintzela esan nien, eta hori agindu zidatenez, ausartu naiz. Tati:Mazzantini Zezenzaleen Elkartea sortu nuenean, egunen batean koleta moztu eta Plaza Txikian toreatuko nuela agindu nien, eta Iehenengo zezenketa antolatu dugunez, hitza betetzea beste erremediorik ez dut izan.

**Aparteko entrenamendurik egin al duzue zezenaren aurrean jartzeko?** **Tati:** Ni Eibarko zezenplazan Antonio de Blasekin, "Txikito de Zaldibar"-ekin entrenatu naiz. Txikito: Ni bizikletan piska bat baino ez naiz

**Ba al dago zezenketetarako zaletasunik Elgoiharren? Txikito:** Garai batean Plazan Iau edo bost lagun ibiltzen ginen zezenaren aurrean, baina orain, **40** urterekin, ez daukat lehengo arintasunik. Gainera, istripuak ere egon izan dira eta jendeak beldurra dauka. **Tati:** Lehen beste era batera ikusten genituen zezenak. Sokamuturrean korrika ibiltzen ginen, eta gero arratsaldeko bostak iristean Plazara salto egiten genuen, oso jende abila zegoen. Gauzak asko aldatu dira.

**Zezenaren aurrean jartzeko beldurrik ba al duzue? Tati:** Beldurra ez, errespetua.. **Txikito:** Gogoan daukat azken aldiz zezenaren aurrean jarri nintzanean. Praka berriekin joan nintzen eta apurtuta eraman nituen etxera.

Eta **zuek, ba al duzue zezenketetara joateko ohiturarik? Tati:** Joan izan naiz, baina noizean behin. **Txikito:** Zezenketetan pizti handi batzuk ikusten dira, espektakuloa dago, baina ez da berdin gozatzen. Nik zezenak toriletik ateratzen direnean gozatzen dut gehien.

**Nolako erantzuna espero duzue jendearen partetik?** Gure ustez ondo erantzungo du jendeak. Urte asko pasa dira EIgoibarren horrelako gauzak azkenekoz egin zirenetik eta polita izango da.

**Gainera toreatzaile traje eta guzti aterako zaretela jakin dugu: Tati:** Bai, "Txikito Altzola" eta "Lapra" urdin eta zilar kolorez jantziko dira, eta ni berriz, gorriz, beltzez eta urre kolorez.

"Zezenketa komikoa", izenak berak garbi adierazten du, arratsalde alai bat igaro, eta Mazzantiniren oinordekoak ikusi nahi dituenak Trinitate bezperan izango du horretarako aukera.





## Bi elgoibartar zauritu zituzten ertzainek Bergarako istiluetan

Aste honetan albiste izan dira Bergarako jaietan gertatutako istiluak. Baina elgoibartar askok ez du jakingo istiluak saiheste aldera ertzainek erabili zituzten gomazko pilotetako batek bi elgoibartarri zauriak eragin zizkiela da. Izenik eman nahi ez duten arren BARRENekooi esan digunez, "Bergarara iritsi berriak ginen eta taberna batetik ateratzean pilota batek giltzurrunen parean eman zidan eta errebotez lagun bati eskuan. Ez omen dute salaketarik jarriko, jakin dutenez ez baita horrekin ezer konpontzen.

## Organu Emaileen elkarteak informazio mahaia jarriko du larunbatean Plaza Handian

Aste honetan Organu Emaileen Nazioarteko Eguna izan dela-eta "Alcer", giltzurrunetako gaixoen elkarteak, informazio mahaia jarriko du bihar, larunbata, Plaza Handian. Baldintza egokietan hilez gero, bere organoak transplantetan erabiltzeko borondatea aurrez adierazi duen edonor izan daiteke organu emailea, edo baita senideek baimena emanez gero ere. Horretarako donazio-txartela bete eta "AIcer"-era bidaltzea eskatzen dute elkarteko kideek, eta txartela beti aldean eramatea. Organu emaileek jakinarazi nahi dute donaziorik gabe ez dagoela transplanterik, eta ondorioz,. herritarrak organu emaile egitera animatu nahi dituzte.

## Santa Ana eta Olaso elkartuko dituen zuhiaren proiektua martxan da

### Alkatearen esanetan N-634 errepideko trafikoa arinduko du

Gen oiko Errotako zubia artxan da. Injelan npresak prestatu du Santa Ana kalea Olasorekin elkartuko duen zubiaren proiektua. Orain nork egin erabakitzeko lehiaketa publikoa egingo du Udalak. Obrek guztira 126 milioi pezetako aurrekontua dute.



*Altzairuz eraikiko dute zubia eta espaloiak, egurrez. Horrela, estetika eta ekonomia zainduko dituzte, ez baita margotu beharko.*

Zubi berria Sigmako industrialdean hasi eta Santa Ana kalean amaituko da. Zuzena izango da eta guztira 36 metro luze edukiko ditu. Pasabideak 3,5 metroko 2 karril izango ditu eta baita oinezkoentzako bi espaloi ere.

Gillermo Garate alkatearen esanetan, "herri barruko trafikoa arintzeko ezinbestekoa da. Sigmatik datozen bizilagunak edo Olason lan egiten dutenak N-634 errepidera sartu gabe joan ahal izango dira batetik bestera". Zubi berriak hileta elizkizunetan ere izango du zeresanik. "Orain hileta elizkizunak daudenean N-634 errepideko trafikoa gelditu beharra dago funerariako autoa eta senideak kanposantura joateko. Hemendik aurrera, herri barrutik joan ahal izango da hilerrira", esan digu alkateak.

Beraz, zubi berria eraikitzean guztira bederatzi zubi izango dira Elgoibarren. Hamar ere izan daitezke, baldin eta San Pedro auzoan pasarela egitean zubi zaharra botatzen ez badute.

## Pertsonen hergizarteratzea helburu duen 17ahaltzen-Sartuu elkarteak egoitza inauguratu du

"Zabaltzen-Sartu" elkarteak bere egoitza inauguratu zuen joan den ostiralean Elgoibarren. Elkarte honek bazterketa soziala jasateko arriskuan dauden pertsonak bergizarteratzea eta lan munduan sartzea du helburu. Pedro Muguruzako eskola zaharretan egin zuen elkarteak aurkezpena eta bertan Gillermo Garate alkateak, Ramon Jauregi Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzu Sozialetako zuzendariak eta Fernando Consuegra, "Zabaltzen-Sarm"-ko Debabarreneko zuzendariak hartu zuten parte. Pedro Muguruzako eskola zaharretan aurrez lanean ari baziren ere, egoitza nagusia bertan jartzea aurrerapauso bat izan dela esan ziguten eta modu honetan Debabarrena Sarturen sarean barneratuko da.



## Gestio Eskolako lau ikaslek ikasketa amaierako proiektua aurkeztu zuten




Joan den rnaiatzaren 30ean Gestio Eskolan hainbat aurkezpen ekitaldi izan ziren. Goizez kalitatea izan zen gai nagusia, eta Europako hainbat proiektu aurkeztu zituzten. Anatsaldean, berriz, Gestio Eskolaren aurkezpen irekia egin zuten. Bertan, 4 ikaslek karrera amaierako enpresa proiektua azaldu zuten jendaurrean. Xabier Belaustegik, Ainhoa Axpek, Idurre Arreitunandiak eta Aitziber Sasietak SAT-ELI I b proiektuaren bidez Alemanian dagoen Makina Erreminta enpresa baterako laguntza teknikorako zerbitzua prestatu dute.

## Debabarreneko 7 emakumek amaitu dute pintura industrialeko ikastaroa Institutuan

Elgoibarko institutuak harreman estua dauka inguruko enpresekin eta ongi ezagutzen ditu enpresen beharrak. Prestatutako langileen beharrari aurre egiteko pintura industrialeko ikastaro bat jarri zuten martxan. 29 eta 46 urte bitarteko Debabantneko 10 emakumek hasi zuten ikastaroa eta horietatik 7 ikaslek amaitu dute. Gainera, 5 ikasle praktikak egin ostean enpresetan kontratatu dituzte eta aintzindari bihurtu dira. Ekainaren I ean diploma bana jaso zuen ikasleek.






### Aste honetan Organo Emadeen Nazioarteko Eguna izan da

# HIL ONDOREN ORGANOAK EMATEKO PREST AL ZAUDE?



**MARI JULI ARREGI**

**41 urte, komertziala**

Bai, etxian danok gera organo emailiak, kanpaina bat egon zan eta danok in ginan emaile. Ume txikixena ere jaixo zanetik da donantia.

**FELIPE LIEBANO**

**36 urte, okela banatzailea**

Ahal izango banu, bai. Baina hepatitisa izan dudanez, ezin dut ez odolik ezta organorik ere eman. Heriotzaren bat ebitatzeko edo norbaiti bizitza hobea emateko balio badu ongi iruditzen zait.





**ROSARIO AIZPIRI**

**60, etxekoandrea**

Bai, ni urte askuan naiz donantia. Lehengusina bat hil jatan giltzurruneko gaitzakin, eta orduan ein nintzan. Lehen jendiak ez zakixan honen berri bairia oin kanpainekin jende asko eitxen da donante.

**AGUSTIN PRADO**

**46 urte, teknikaria**

Ez, zenbat eta denbora gehiago pasa zure organoak zein egoeratan egongo diren ez dakizulako. Logikoena organoak gaztaroan ematea litzateke.





**ELENA CRESPO**

**53 urte, etxekoandrea**

Ni hiltzean nire organoren bat aprobetxatzerik balego, bai. Hala ere, gorputz guztia ez dakit emango nukeen, erraustea gustatuko litzaidake eta nire zatitxo bat itsasoan geratzea.

**ALBERTO GARCIA**

**28 urte, espezialista**

Bai, ez naiz donantea, baina ez nuke inolako arazorik izango nire organoak emateko. Gainera, organo guztiak emateko prest egongo nintzateke.



SUKATU S.COOP

11040./^4 cS. Cuor.

Olaso industrialdea. Olaspe, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Cordon,Vilarchao, c.b.

DEKORAZ110.4

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: **943 74 28 74-74 05 70**

GAZTE GEHIGARRIA · 2001ko ekainak 8 · VIII. urtea/366. zkia

# Gaztia NAIZ

## Barrian



# "Tronpia jotzetik bizitzia gustauko jatan"

**ANDONI MUJIKA** ELKARRIZKETA **OPORRAK** GAIA **GORANE SALABERRIA** LONAGABE

## DoUblE DEaling
### LUCKY PETERSON

New York-eko bluesmanaren lanik berriena da "Double Dealing" gaur gauean, hain justu, Getxoko Blues Jaialdian aurkeztuko duen diskoa. Multi-instrumentista paregabea dugu Lucky Peterson, gitarrista moduan nabarmentzen bada ere, teklatua, baxua, bateria eta tronpeta ere jotzen baititu. Aita blues abeslaria zuen eta Koko Taylor. Junior Welles eta Muddy Waters entzuten hazi zen. Urne bat zela, hiru urterekin, hartu zuen bere lehen tuusika instrurnentua eskuetan. "Double Dealing" blues klasikoz eta soul ikutuko ahestiez osatuta dago. Diskoaren izen bereko kantak irekitzen du lana. "When my blood runs cold", berriz, blues lasai horietakoa da, "Don"t try to explain" soul giroko balada bat den bitartean. Haizezko instrumentuak entzun daitezke CD guztian, baina neurri egokian erabiliak. "Ain't doin" too bad" abestian aurki dezakegu saxo solo bakarra. Diskoa "Remember the day" ryhtm&blues mugituarekin isten da.

Instrumentista ona izateaz gain, abeslari bikaina dela erakusten du Lucky Petersonek. Soularen eragina kantatzean eta Alhert Collinsen antzeko estiloa gitarra jotzeitn. Blues soinu garaikidea du, ezbairik gabe, bluesman estatubatuarraren azken ekoizpenak. lkus dezagun zuzenekoa estudioko lana bezain ona den.

**Jon** Gurrutxaga






# ANDONI MUJIKA
# "Tronpia bEti gair

**20 urtE bEtE bErriak ditu Andoni Mujikak. baina ziur dago bizi honEtan egin nahi duenarekin. BerEa musika da. Musika Eta tronpa. Tronpa jotzEri ikastEa Eta mEnpEratzEa du helburu Eta noski, hortik bizitzea. DagoEnEko Euskadiko Gazte OrkEstrako partaidEa izan da Eta gutxi balitz, baita Espainiako OrkEstrakoa ErE.**

Nondik datorkizu musikarako zaletasuna eta nolatan aukeratu duzu tronpa?

Etxetik. Beti euki dot musikarako girua etxian eta gero, tronpia aukeratziana beste elgoibartar bat jotzen ikusi nabalako izan zan, Gustabo Barrenetxeari ikusitxa.

Hortik bideratu dituzu ikasketak ere, ezta?

Bai, tronpako karreria eitxen nabil. Gaur egunian eztao unibertsitateko karrera bezela hartuta. Ni 7. mailan nao eta 8 maila dia. Ikasturtiak kontatzeko eria ez da ikasketa normaletan bezelakua, horregatxik dia hainbeste maila.

**"Españiako orkestran jotzia aurrerapauso demasa izan zan"**

Gurasoek, nola hartu zuten musikoa izan nahi zenuela esan zenuenean?

Institutotik urten eta unibertsidadera ez nintzala jungo ikustian, bildurtu ein zian. "Magisteritza ein dezakezu" eta holakuak esaten zizkiaten. Azkenian, serixua dala ikusi dabe.

Zer moduzko esperientzia izan da Espainiako Oskestrarekin tronpa jotzearena?

Oso ondo. Iazko abenduan pruebak ein zizkiguten eta hartu egin ninduten. Gabonetan, Albarracinen izan zan enkuentrua, Terueleko herri txiki baten. 115 lagun eon ginan eta hoietatik, Gipuzkoako herri txikixetatik, ni bakarrik nauan. Euskadiko Gazte Oskestran nengoen momentu hartan eta Españakuan sartzia aurrerapauso demasa izan zan niretzat. Espainiako Oskestra guztiz diferentia da: oso disziplina eta maila altua dakate.



# ian EruatEn d )t”

Lehenengo pausoak eman dituzu musika rnunduan. Nora iristea gustatuko litzaizuke?

Profesionala izatia da zailena. Orkestra profesional batian aritzia gustauko jatan.



Zein da zure ametsa?

Bi astian behin klasiak hartzera juten naiz Madridera eta horrekin jarraitzia nahiko naban baina gero ahal badot, Estatu Batuetara jutia gustauko jatan, ikastera.

Zergatik EEBBetara?

Hemengo jendian musika mota honekiko pentsakera eta ikuspuntuak ez dia oso lagungarrixak. Adibidez, txarangia ikusi eta mundu hori oso serixua ez dalapentsatzen dabe. Baina hemendik urten ezkero, Europa mailan eta batez

## "Estatu Batuetara musika ikastera jutia da nere ametsa"

ere, Estatu Batuetan, musikako unibertsidadiak daoz eta oso diferentia da.

Zein da zure idoloa?

Txikagoko orkestra metalezko instrumentuentzat dauan eskaparate onena da nire ustez. Horko musikuak neretzako onenak dia. Suertia euki dot, horko tronpista solistiakin pare bat kurtsillo egiteko aukeria izan dotelako. Musikatik aparte zelako pertsonak dian eta bizitzarako ze filosofia dakaten ikusteko aukeria izan dot.

Musikoek bizitzeko modu desberdina al daukazue edo pertsona bitxiak al zarete?

Jendiak hori pentsatzen dau; musikuak bohemivak diala dake buruan, baina oso pertsona normalak dia. Musikia beraien bizitzako parte bat da, baina gero familixia eta beste bizimodu bat dakate eta horietaz ere disfrutatzen dabe eta gero, hori guztixa beraien musikan igartzen da gainera.

## CominiquE Artzain xiberotar bat Nvadan

Aurtengo marixoan hil zen Robert Laxalt jatorri euskalduneko idazle estatubatuarra. Nafarroa Behereko eta Zuberoako gurasoak zituen idazle honek, Estatu Batuetan euskaldunen errealitatea ezagutarazteko paper garrantzitsua jokatu zuen. Zeregin horretan, "Dominique. Artzain xiberotar bat Nevadan" liburuak aparteko garrantzia eduki zuen, lehendabizikoz Estatu Batuetako euskaldunen bizimodua erakutsi zuelako.

Jatorrizko izenburua "Sweet promised land" duen liburuak kritika oso onak izan zituen argitaratu ostean eta frantsesera, aletnanierara eta azkenik euskarara ere itzuli zuten. Bertan, Robert Laxaltek bere aitaren bizitzaren berri ematen digu, nola gaztetan Zuberoatik Nevadara joan zen eta artzain lanetan hasi zen dirua irabazteko. Egile berberaren beste iiburu bat ere, "Kafea hartzea Irufiean" euskarara itzulita dago, nahiago duenarentzat irakurtzeko zain.

**Jon Eugi**



# oporrak prestatzen

Udako oporrEtarako gero Eta Egu
Gazte asko egunEroko buruhausi
Eta hErritik ateratzeko planak Eg
Badira dirua aurrEratu Eta jai eg
aprobEtxatuko dituztEnak. BEstE
edo dEnbora falta dela-Eta azk
dute hElmuga. TrEnEz, auto
Kanpinean, aterpEtxEetan edo hoto




**KANPIN GIDAK**
"Guia Oficial de Camping España"
"Europa Camping+Caravaning"

**NEKAZAL TURISMOA**
EAE 902 130 031
Nafarroa 948 206 541
Ipar Euskal Herria 0033467676262

**TRENA eta AUTOBUSA**
**Inter Rail** 902 240 202
www.renfe.es/www.interrail.net/
www.iespana.es/todosobreinterrail
**Explore Rail** 902 32 52 75
Eurolines Pass www.eurolines.es

**HEGAZKINA**
www.unlimitecLes
www.easyjet.com
www.comoviajar.com

**Informazio gehiagorako**
**Gazte Informazio Gunea**
**Kultur Etxeko 2. Solairua**
**Tel. 943 74 14 61**
**E-maila:elg.gzerbitzua@terra.es**

## KANPINA



Dirua aurrezteko aukerarik izan ez baduzu eta poltsikoak hutsik izanez gero, kanpinean joatea da aukerarik merkeenetariko bat. Akanpada Iibrea egin dezakezu, beti ere kanpin denda jartzea leku batzutan debekatuta dagoela kontutan hartuz. Kanpin denda montatu eta handik gutxira kentzeko esanez norbait etorriko den beldur bazara, propio prestatutako kanpinak ere badituzu. Garraio publikoz gerturatuz gero, 1.500 pezetaren truke pasa dezakete gaua bi lagunek kanpinean. Hala ere, lekuaren arabera prezioak desberdinak dira eta horren berri jakiteko kanpinen gidak badaude.



## NEKAZAL TURISMOA

Hauetara inguratzeko autoa eramatea komenigarria da, gehienetan herriko erdigunetik aparte egoten baitira. Euskal Herriko txokoak ezagutzeko modu bat izan daiteke, baina hemendik kanpo ere bada mendiko inguruak ezagutu eta nekazal giroko etxeetan ostatu hartzeko paradarik.

## ATERPETXEAK

Garraiobide moduan trena edo autobusa aukeratzea eta lo aterpetxeetan egitea da oporrak

# asiko al elara?

gutxiago falta dira.
Ik albo batera utzi
En hasiak dira jada.
iak urrutira joatEko
atzuk, ordca, diru
orduan ErabakIko
Edo hEgazkinEz.



bidaiatzen pasatzeko beste modu bat. Espainian aterpetxeetan gauak 500 eta 1.400 pezeta arteko kostua du, eta Frantzian, berriz, 1.000 eta 3.000 pezeta bitartekoa. Baina burua nekatu gabe eta diru piska bat izanda bidaia agentzia batera joan eta zuen aurrekontuaren araberako bidaia prestatuko dizuete.

## INTER-RAILA

Egindako aukeraren arabera nahi beste tren hartu ahal izango dituzu hautatutako denbora tartean. Autobusez bidaiatzeko ere badira era honetako programak; Eurolines Pass esaterako.



## HEGAZKINA

Hegazkinez bidaiatu nahi baduzu Interneten bidaia egokiak eta merkeak aurki ditzakezu, baina beti ere garaiz ibilita. Helmuga pentsatuta baduzu, baina herrialdeari buruz zerbait gehiago jakin nahi izanez gero, liburudendetan beti aurkituko dituzu bidaia liburuak. Trotamundos sailekoek argibide eta pista asko ematen dituzte.

Bestalde, gazteok, jakin ezazue EIgoibarren badela Gazte Informazio gune bat eta bertan bidaiei buruzko informazioa emateaz gain, herritik kanpora bidaiatzean hain komenigarriak diren aterpekide, ikasle, irakasle edo gazte txartelak egiten dituztela..

# Elgoibarko sei gaztek inter-raila aukEratu zutEn iaz

**Elgoibarko 6 mutil gazte Inter Rail programaren bidez bi aldiz izan dira Oporretan trenez Europako txokoak ezagutzen. Norbait izango da gure irakurleen artean bidaiatzeko modu hau aukeratu edo ez zalantzan dabilena, eta agian beste norbaiti gogoa sortuka zaio hauen hitzak entzunda.**

*Ezkerretik hasita Jon Urbieta, Andoitz Agirregomezkorta, Mikel Arriola, Asier Orhea, eta Jon Barrenetxea. Monacon ateratako argazkia.*



Ibon Gabilondo

### Zer dela-eta aukeratu zenuten inter Rail?

Denbora laburrian gauza asko ikusteko aukeria ematen dabalako eta gainera rentablia urtetzen dalako. Prezio merkian gauza eta toki asko ezagutu ditxugu. Hala ere, janarixakin eta lo itxeko orduan piska bat sufritxu ere in gendun. Tren danak ez dia berdinak, eta batzutan goize.ko lauretan trenetik jeitsi eta lotarako lekua, janarixa eta hori dana norberak topau bihar dau.

### Bi aldiz joan ostean. Zenbat toki ezagutu dituzue?

Ekialderuntz, adibidez, Budapesteraino heldu ginan, eta bidian Suiza, Austria, Txekia, Kroazia eta Frantzia pasau genituan, hiri inportantienak bisitatuz. Iparraideruntz, berriz, Norbegiaraino heldu ginan. Iaz Hanoverreko Expua zala-ta Alemania ikusteko aprobetxau gendun. "Selva Negra"-n ere egon ginan, eta asko gustau jakun.

### Gomendatuko al zenioke jendeari inter Rail bidez bidaiatzea?

Bai, programa honek libertadia ematen du. Toki bat gustau ezkero bertan egun bat baino gehixao pasau leike. Gainera, egun baten Parisen egon eta dana ikusi dozula iruditzen bajatzu, hurrengo egunian iguat Berlinen esnau zaitxezke.

**Ikerketa beka**
Zestoako Udala; Euskara eta Kultura Zerbitzua. Lizentziatuak; EGA. Zestoako ondare kulturala eta usadioak ikertzeko "Zestoa Herria 2001" beka.
Epea: ekainaren 30a.

**Enpresetan praktikak egiteko bekak**
Euskal Enpresarien Konfederakuntza. Atzerriko (Europa) enpresetan praktikak egiteko "Leonardo Da Vinci 2001" dirulaguntzak. Unibertsitateko ikasleentzat edo graduatu berrientzat; EAEn bizi edo jaioa izatea; lan esperientziarik gabea; 35 urte baino gutxiago izatea. Epea: ekainaren 15a.

Aq ПortRa..rei 11111/

**Auzolandegiak**
Deustuko Unibertsitatea. Deustuko Unibertsitateko 2001 Auzolandegiak. Estatuko leku desberdinetan izango dira.
Epea: uztailaren 24a

## eta LEHIAKETAK

**Komiki lehiaketa**
Irungo Udala. nIrun Gaztea" komiki banda lehiaketa. Epea: ekainaren 13a.

**Argazki lehiaketa**
Zumaiako Udala. "Zumaiako XIII. argazki lehiaketa"; zuri beltzeko argazkiak; gai librea; gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango dira. Epea: ekainaren 22a.

**Kontsulta ezazu astero gure lan eskaintzen bilduma. Eta naziourteko karnetak Aterpekide txartela...) eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera. tVlomentuan egingo dizugu.*

GATTE INFORMABO GUNEA
tialarrea Piaza, 3 • Tel. 843 74 14 61

Ortlutegia
Osteguna eta astirala: 17:00- 20:00
Larunhata: 10:00- 14:00

# agEnda

## S barixakua

**ELGOIBAR**
Marea eta Flitter
Gaztetxean

**BILBO**
**22:00 Oreka TX.**
Kafe Antzokia
800 pezeta

**SORALUZE**
22:30 **Kokein**
Gaztelupe taberna

**DONOSTIA**
**00:00 Sagarroi eta Lif**
Larratxoko eskolako patioan

**GETXO**
**21:30 Lucky Peterson Band**
erromoko Santa Eugenia plazan

**GASTEIZ**
21:00 **Parasma eta Eraso!.**
Gaztetxean

**IGORRE**
**23:00 Biok eta La Polla.**
Plazan. Doan.

**LASARTE**
**23:00 Telephunken.**
ZuIo aretoan.
Ondoren,
**DJ Telephunken eta DJ Pendejo.**

**ELGOIBAR**
**00:00 Lau Mono eta Azken Garrasia**
Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.
Madalan

**DONOSTIA**
**00:00 Etzakit**
Larratxo auzoko jaietan.
Eskolako patioan

## 9 zapatua

IRUÑEA
20:30 Flitter, Su Ta Gar., Hemendik At eta Marea.
Zezen plazan,

**BILBO**
**21:30 Global Dance** Festival
**Frederic Galiano, Nu Tempo, U-Cef eta Zuco 103.**
Erakustazokan.

## 10 domEkia

**GETX0**
**21:30 Mighty Sam McLain.**
Erromoko Santa Eugenia plazan,
Doan. Nazioarteko Blues Jaialdia.

**ONDARRU**
**Goizeko 7:00etan**
**Koldo Dj, Iker Dj eta Joseba Dj. 34**
Dantzalekuan.



# lots@gabE

**Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Animatu! Zuen laguntza ezinbestekoa dugu!**

@ Ohean zaude. Zer pasatzen zaizu burutik?
Ez dakat gogorik bihar Ikastolara juteko.

@ Nola deitzen zen zure umetako pelutxezko hartza?
"Bubu", txikitxan hitz hori bakarrik esaten nabalako.

@ Zein botako zenuke "Gran Hermano"-tik?
Mercedes MiK

@ Zerk ematen dizu amorrua?
Nire amak "cielito" edo "mi reina" deitziak.

@ Zein da azkenaldian entzun duzun esaldirik bitxiena?
"Te lo juro por Ia cobertura de mi mdvil".

@ Zenbat diru daukazu kontu korrontean?
Ta zuk?

Eskatuko zenituzkeen hiru desio:
Zu, zure dirua eta ostiral honetan BARRENak etxietara ez ailegatzia, ja,ja!

@ Zein da inoiz entzun duzun gauzarik harrigarriena?
Txerrixek 30 minutuko orgasmua dakatela.

@ Inoiz egin duzun ridikulorik handiena kontutako al diguzu?
"Piercing"-a in ziaten, mareau in nitzan eta PESA pareko eskaliari sillia eskatu bihar izan nion jartzeko.

@ Gorrotatzen duzun pertsona batekin gurutzatzera zoaz kalean. Zer egingo zenuke:
a. Beste aldera begiratu eta ikusi ez duzunaren planta egin.
b. Agur! esan, oso sinpatika.
d. Alboan duzunarekin pertsona horrengatik gaizki esaka hasi.
Lehenengoa.

@ Zerk ematen dizu heldurra?
Larunbatetan etxera ailegatzerakuan gurasuak esna egotiak.



http:/ goranesalaberria.com / 15 urte

## LEI-1110KE «-

## a~matu
LIBURU BAT **eskuratu**




Hilahete honetan JULThI GABIRIAK IDATZITAKO UBURUA ZOMETATUKO DUGU. IparragIrre kantariaren hiogratia da. Eskuralzeko galdera hauei ondo erantzun behar diezue:

1

NOMG0fi Pfi JULEM GABIRIA?

EIM DA IPARROGIRREREM ABESTI EZAGUMEMETAKO BAT?

Aurreko hdeko saritua ALICIA GON1112 da. Zorionaki Jasone Osororen "Korapdoak" Oburua eskuratu duzu.

Erantzunak BARRENera ekar ditzakezue edo huzolan laga hamabost eguneko epean.





# informazioa

**OSASUNA**

Anbulatorioa . . 943 03 26 10
Planning-a . . . 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 94374 03 85
D YA (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorna 943 74 38 64
Mendarolo Ospitalea. 943 03 28 00
Odol Emaileak . 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak . 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia . . 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua 943 74 44 15
